

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA SAUren 2025eko ENPLEGU ESKAINTZAN SARTUTAKO DOTAZIOAK BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUEN DEIALDIA ETA OINARRIAK.

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Donostiako Tranbia Konpainia, SAU sozietaterako hainbat lanpostu kontratatzea da deialdi honen helburua. Udal sozietate publiko horren helburua da Donostiako hiri garraio publikoa kudeatzea.

Deialdi honen xede diren lanpostuak 2025ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren barruan daude.

Hauek dira eskaintako lanpostuak eta, ondorioz, deitutako hautaketa-prozesuak eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskinak:

Lanpostua	Sistema	Sartzeko modalitatea	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Balio anitzeko gidari-kobratzailea	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	9	1.Eranskina
Balio anitzeko mekanikari-elektrikaria	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	2	2.Eranskina

Deialdia publikoa eta irekia da, eta langileak hautatzeko enpresa batek kudeatuko du deitutako hautaketa prozesuak, dokumentu honetan jasotako baldintzei eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei jarraiki, eta deialdiaren arau orokorren eta kasu bakoitzaren oinarri espezifikoetan jasotako berezitasunen arabera.

Deitutako hautaketa prozesuaren ondoriozko kontratazioak lan-kontratu mugagabearen bidez egingo dira.

Hautaketa prozesu hauetan ez da lan poltsarik sortuko.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Dagokion hautaketa prozesuan parte hartu ahal izango dute ondoko baldintza baztertzailerik hauek betetzen dituztenek, parte hartzeko eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino lehen, eta betetzen jarraitu beharko dute kontratua sinatu arte:

- Eskatutako titulazioa/ziurtagiriak izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea, oinarri espezifikoetan adierazitako berariazko betekizunen arabera. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.
- Europar Batasuneko kide den estaturen bateko edo Espainiako Estatuarekin lan hitzarmena sinatua duen herrialderen bateko hiritartasuna izatea edo horietan lan egiteko eta bizitzeko baimena izatea.

- c) Parte hartzeko eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean 16 urte beteak izatea.
- d) Lanpostuak bere dituen lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Dagozkion lanak egiteko eragozpenak sortuko dizkion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.
- e) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasunaren edo bateraezintasunaren legezko kausa ez izatea.
- f) Oro har, erakundearen kaleratu ez izana, eta hautaketa-prozesuaren xede den lanpostu bereko probaldia ez gainditzeagatik kargutik kendu ez izana.
- g) Deitutako lanposturako eskatzen den beste edozein betekizun espezifiko, bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera.

Prozesuaren edozein unetan Hautaketa-Organoak jakiten badu hautagairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, prozesutik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Prozedura honen arabera aurkeztu beharko dira eskabideak:

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

⁺ Dagozkion hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak hamar (10) egun balioduneko epean aurkeztuko dira, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zehazki, 2025eko martxoaren 13tik 26ra.

AURKEZTEKO MODUA ETA LEKUA:

Parte hartzeko eskabide-orria bete eta sinatu beharko da, www.dbus.eus, "Langileen Hautaketa" atalean eskuragarri dagoena, (<https://dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/personalaren-aukeraketa/>), eta 2 kopia egin beharko dira, aurkeztean kopia zigitatu bat itzul dadin, frogagiri gisa.

Inprimakiaren bi kopia aurkeztuko dira, eta horietako bat dokumentu honen hurrengo puntuaren arabera eskatzen den dokumentazioarekin batera, aurrez-aurre aurkeztuko dira helbide honetan: Grupo OTEIC, Zuzatu Enpresa-Parkea, Igeldo Eraikina, 1. Solairua - 20018 Donostia. Aurkezteko ordutegia: 9:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Parte hartzeko eskabide-orriarekin batera, hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira (ikusi oinarri orokorrak eta lanpostu bakoitzarekin oinarri espezifikoak), bai eta alegatzen diren merizimenduei buruzkoak ere. Horiek guztiak Parte-Hartzeko eskabide-orrian jaso beharko dira.

Dokumentuak originalak, kopia konpultsatuak edo kopia sinpleak aurkeztuz aurkeztu ahal izango dira. Azken kasu horretan, kontuan hartu beharko da Oinarri Orokorrak inkorporazioari buruzko atalean adierazitakoa (dokumentazioa aurkeztea, hautatua izanez gero egiaztapen frogagarria egiteko).

Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean dagoen dokumentazio oro zinpeko itzultzaileak itzuli beharko du, balioetsi dadin. Itzultzeko premia horretatik salbuetsita daude ingeleseko, frantseseko edo alemaneko maila egiaztatzen duten titulu ofizialak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez da onartuko inolako dokumentaziorik aurkeztea, salbu eta DBUSEk berriaz eskatzen duenean aurrez alegatutako informazioari buruzko datuak egiaztatzeko edo zabaltzeko.

Eskakizun orokorrak eta espezifikoak eta merezimenduak egiaztatzeko, guzti hori oinarri orokorren eta espezifikoaren arabera dagozkionak, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- A. NANA edo identifikazio agiri baliokidea.
- B. ESKATUTAKO TITULAZIO AKADEMIKO OFIZIALA, hala badagokio: Hautaketa-prozesu bakoitzean eskatzen diren titulazioen titulua edo eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.
- C. GIDABAIMENA, lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan adierazitako berriazko betekizunen arabera.
- D. GIDARIAREN GAITASUN AGIRIA (GGA), lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan adierazitako berriazko betekizunen arabera.
- E. ESPERIENTZIA PROFESIONALA:

Erakundearen bertan (DBUS) emandako zerbitzuak eskatzaileak berak alegatu egin beharko ditu eta ofizioz zenbatuko dira, hau da, ez da beharrezkoa izango egiaztagiririk aurkeztea.

Donostiako Udalaren menpeko beste erakunde batean, udalean bertan edo Donostiako Udalarena ez den sektore publikoko beste erakunde batean emandako zerbitzuak alegatu eta egiaztatzeko, egiaztagiria edo eskatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Dokumentu hori, erakunde bakoitzak erabakitzen duen ereduaren arabera, honako informazio hau banakatu beharko da kontratazio-aldi bakoitzerako (*): lanpostuaren izena, kategoria, hasiera-data eta amaiera-data, emandako zerbitzuen iraupena egunetan, lanaldiaren % (**) eta eginkizunen deskribapena.

(*) Izendapen/kontratu biren edo gehiagoren artean etenik ez badago, merezimendu bakar gisa alega daiteke, lehenengo izendapenaren hasieratik azken amaitu arte, betiere erakunde berean eta lanpostu, lanaldi eta eginkizun berean badira.

(**) Emandako zerbitzuen iraupena, egunetan adierazita, lanaldiaren ehunekoa kontuan hartuta kalkulatzeko bada, adierazi egin beharko da.

Kasu guztietan, honako hauek zehaztu eta egiaztatu beharko dira, lanbide-espereentzia baloratzeko: hautagaiak senitartekoak zaintzeagatiko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukidetasunez bateratzen laguntzea, bai eta langile genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere.

F. **BESTE PRESTAKUNTZA AKADEMIKO OFIZIALA:** Titulua edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

G. **BESTE PRESTAKUNTZA-IKASTARO BATZUK:** Alegatutako ikastaroaren tituluak edo ziurtagiriak. Gutxienez hauek jaso beharko dira: ikastaroaren titulua, prestakuntza-orduen kopurua, data eta prestakuntza ematen duen erakundea.

Erakundean bertan (DBUS) egindako prestakuntza-ikastaroak eskatzaileak berak alegatu egin beharko ditu eta ofizioz zenbatuko dira, hau da, ez da beharrezkoa izango egiaztagiririk aurkeztea.

H. **EZAGUTZA INFORMATIKOAK:** IT Txartelen ziurtagiriak, maila zehaztuz, hala badagokio.

I. **ATZERRIKO HIZKUNTZAK** (Ingelesa, Frantsesa, Alemana): Titulazio edo ziurtagiri ofizialak, baliokidetasun onarpenarekin, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera.

J. **EUSKARA:** Titulazio ofiziala.

Halaber, izangaiek euskararen ezagutza egiaztatzeeko proba egin nahi dituzten ala ez adierazi beharko dute, eta zein hizkuntza-mailara aurkeztu nahi duten adierazi beharko dute. Eskaeran proba hori egin nahi dutela berariaz adierazi ez duten pertsonen ez dute proba egiteko eskubiderik izango.

BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA:

Parte hartu nahi duzun hautaketa-prozesu bakoitzeko eskabide oso bat aurkeztu beharko da.

Eskatzaileak Parte hartzeeko Eskaeraren inprimakian eskatzen diren atal guztiak eta xehetasunak bete beharko ditu, eta hori justifikatzen duten dokumentuak erantsi. Era berean, erantzukizunpeko adierazpen gisa sinatu beharko du, ziurtagiri digitalaren bidez edo eskuz, parte hartzeeko baldintzak betetzen dituela eta aitortutako datu guztiak egiazkoak direla.

Hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira adierazitako moduan, lekuan eta epean aurkezten ez diren parte hartzeeko eskabideak.

LAUGARRENA. HAUTAGAIK ONARTZEA.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, eskabide horiek berrikusiko dira, hautaketa-prozesu bakoitzean eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen direla egiaztatzeko, eta onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

Zerrenda horietan, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko da, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideek izan ditzaketen akatsak zuzentzeko, zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dela baldintzaren bat ematen, interesdunek bertan behera utziko dituzte parte hartzeko eskaeratik erator daitezkeen eskubide guztiak, hargatik eragotzi gabe faltsutzeagatik izan ditzaketen erantzukizunak.

BOSGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA.

Oinarri orokor hauetan jasotako irizpide eta ezaugarri orokorren eta deitutako lanpostu bakoitzarako oinarri espezifikoetan jasotako irizpide eta ezaugarri espezifikoaren arabera garatuko dira hautaketa-prozesuak, harik eta hautagaien azken kalifikazioaren behin betiko zerrenda argitaratu arte.

5.1. Hautaketa-organo bat eratuko da, eta inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak errespetatuko dira haren osaeran.

Hautaket-organoak hautaketa prozesuen gardentasuna eta objektibotasuna zainduko du, baita proben konfidentzialtasuna eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzea ere. Era berean, ahalmena izango du hautaketa prozesuen garatzean sortzen diren zalantzak aztertzeko, bai eta baldintzetan xedatutakoaren arabera prozesuak modu ordenatuan garatzeko behar diren erabakiak proposatzeko ere, eta baldintza hauetan aurreikusi ez diren kasuetan hartu beharreko irizpideak proposatuko ditu.

Hautaketa-organoak aholkulariak edo enpresa espezializatuak sartu ahal izango ditu bere lanetan, egokitzat hartzen dituen kudeaketak eta probak egiteko, hala nola eskaerak jasotzea, probak diseinatzea, probak egikaritzea eta baloratzea kasu batzuetan eta abar.

5.2. Interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen bitartekoen bidez egindako argitalpenen ondoren, 3 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, horretarako ezarriko den prozedurari jarraituz.

5.3. Honako hau izango da hautaketa sistema: lehiaketa-oposizioa.

5.4. Oposizio- eta lehiaketa-faseen eta euskara-probaren ezaugarri orokorrak:

OPOSIZIO FASEA:

Oposizio fasea nahitaezkoa izango da, eta ez baztertzailera. Gaitasun profesionala baloratuko da eta proba bat edo batzuk egingo dira horretarako. Proba horiek galdera sortak izango dira eta hainbat erantzun aukera izango dituzte edo proba teoriko-praktikoak izan daitezke, deitu diren lanpostuen eginkizunekin eta jarduera eremuarekin loturik betiere.

Behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, oposizio-fasearen behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

Hautagaiak probak presta ditzaten orientatzeko, lanpostu bakoitzari buruzko informazioa sartu da bakoitzaren oinarri espezifikoean.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, eta deitzen zaienean pertsona bat edozein probetara aurkezten ez bada, bertan parte hartzeko eskubidea bertan behera geratuko da automatikoki, eta, ondorioz, dagokion hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa-organoak arrazoituta balioetsitako kasuetan izan ezik.

Probak egiteko behar diren egokitzapenak egingo zaizkie dibertsitate funtzionala duten pertsoneri, egokitzapen berezirik behar badute, gainerako parte hartzaileek duten aukera berdintasuna izan dezaten, betiere horrekin probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

LEHIAKETA FASEA:

Lehiaketa fasean hautagaiak alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da alegatzen diren merezimenduen erreferentzia data eta behar bezala egiaztatuak izan beharko dira.

Alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak kalifikatu, baloratu eta egiaztatuko dira, kasuan kasuko oinarri espezifikoean hautaketa-prozesu bakoitzerako ezarritako baremoen arabera, eta puntuazioen behin-behineko zerrenda argitaratuko da.

Zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 3 egun balioduneko epea izango da erreklamazioak aurkezteko eta zerrendetan egon litezkeen akatsak edo omisioak zuzentzeko.

Ez dira onartuko hasieratik eskabidean zehaztu gabeko merezimendu berriak alegatzea dakarten erreklamazioak edo zuzenketak.

Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, fase honetako behin-betiko puntuazioak argitaratuko dira, euskararen ezagutza-proba egiteko zain, dokumentu honetan adierazitakoaren arabera.

Aplikatu beharreko irizpideak:

Merituak kontuan hartzeko erreferentzia-data parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da (euskara-merezimenduarena izan ezik).

Parte hartzeko eskabidean behar bezala alegatu eta egiaztatu diren merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan, akats materialak, aritmetikoak edo egitatezkoak zuzentzeko aukerari kalterik egin gabe. Era berean, ez dira baloratuko behar bezala egiaztatuta ez dauden merezimenduak edo, dagokion baremoaren arabera, merezimenduak baloratzeko beharrezkoak diren datuak ez dituzten dokumentuak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez da onartuko inolako dokumentaziorik aurkeztea, DBUSek alegatutako merezimenduei buruzko datuak egiaztatzeko edo handitzeko berariaz eskatzen duena izan ezik. Era berean, edozein unetan eskatu ahal izango da jatorrizko dokumentua edo horiek behar bezala egiaztatzeko eta baloratzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri osagarri aurkezteko.

Emandako zerbitzuak baloratzeko baremoa (esperientzia profesionala) lanaldi osoan emandako zerbitzuei buruzkoa da. Hala ere, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukidetasunez uztartzea erraztea xede duten denbora, bai eta langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere. Inguruabar horiek % 100ean zenbatuko dira, baldin eta aurkeztutako dokumentazioan behar bezala egiaztatzen badira.

Aldi bereko esperientziak lanaldi partzialen kasuan bakarrik baloratuko dira, eta ez dira inoiz % 100etik gorako lanaldiak zenbatuko.

Esperientzia-tipologia bakoitzean lan egindako aldien batura eginez egingo da zenbaketa, eta, esperientzia hori batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak baztertuko dira. Ondorio horietarako, hilabetetzat hartuko da 30 eguneko multzoa.

EUSKARA PROBA:

Borondatezkoa izango da eta ez baztertzailera lanpostuan sartzeko baldintza gisa ezarritako hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuak lortu nahi dituzten izangaiatzat.

Euskara-proba egiteko deia eskabidean probak egin nahi dituztela adierazi duten izangaiei bakarrik egingo zaie, baldin eta, beren puntuazioaren arabera, deialdian lanpostu bat lor badezakete matematikoki.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie, eta deitzen zaienean pertsona bat edozein probetara aurkezten ez bada, bertan parte hartzeko eskubidea bertan behera geratuko da automatikoki, eta, ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatutako eta Hautaketa-organoak libreki balioetsitako kasuetan izan ezik.

SEIGARRENA. AZKEN KALIFIKAZIOA ETA BEHIN BETIKO SAILKAPENA.

Balorazioa amaitutakoan (oposizioa eta lehiaketa), hautaketa-prozesu bakoitzaren behin-behineko azken sailkapenak argitaratuko dira.

Izangai bakoitzaren behin-behineko azken kalifikazioa oposizio-fasean eta lehiaketa-faseko ataletan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du, hautaketa-prozesu bakoitzaren oinarri espezifikotik adierazten den baremoari jarraituz.

Behin-behineko azken sailkapenaren zerrendan hautagai bakoitzaren lehentasun-ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, oinarri espezifikotik aurreikusitako berdinketa hausteko irizpideak hurrenez hurren aplikatuz.

Iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautagaiak 3 egun balioduneko epea izango dute egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaitutakoan, aurkeztutako erreklamazioak aztertuko dira, eta, ondoren, behin betiko azken sailkapena argitaratuko da.

ZAZPIGARRENA. LANEAN HASTEA.

Hautatutako hautagaiak sozietatean sartuko dira enpresak ezartzen duen epean, lan-kontratu mugagabea formalizatuta eta haren araudiaren arabera arautuko baita.

Era berean, aukeratutako behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek eskatzen zaizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte horretarako jarri den epearen barruan. Hautaketa prozesuan zehar modu frogagarrian egiaztatu ez den dokumentazioa edo hautaketa prozesuan zehar mantendu behar diren eskatzaileen baldintza pertsonalei buruzkoa aurkeztu beharko da soilik, hala nola, ezintasunik edo bateraezintasunik ez egotea.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo dokumentazioa aztertuta ikusten bada eskatutako baldintzetako bat ez dutela betetzen, edo dagozkien lanak egiteko eskatzen den gaitasuna ez dutela betetzen, ezin izango dira lan kontratuko langile finko izan, eta haien jardura guztiak baliogabetuta geldituko dira, eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

ZORTZIGARRENA. JAKINARAZPENETARAKO ETA KOMUNIKAZIOETARAKO MODUA.

Enplegu Publikoaren Eskaintzaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, deialdia egin duen erakundearen helbide elektronikora bideratuz:

<https://dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>

Hautaketa-prozesuan zehar, prozesuaren garapenarekin lotutako alderdi guztiei buruzko informazio guztia <https://dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>, helbide elektronikoan argitaratuko da, izangaien jakinarazpenarako (zerrendak, probetara deitzea, emaitzak).

Egin beharreko beste komunikazio eta jakinarazpen indibidual batzuen ondorioetarako, parte hartzeko eskabide-inprimakian adierazitako helbide elektronikoa hartuko da lehentasunezko bitartekotzat, salbu eta izangaiak gerora berariaz eta modu frogagarrian beste helbide bat jakinarazten badio deialdia egin duen organoari.

BEDERATZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Hautagaiak beren eskaeretan emandako datu pertsonalak eta oinarri hauetan araututako prozesuan Donostiako Tranbia Konpainia, SAUri ematen dizkietenak tratamendu-arduradun gisa tratatuko ditu erakunde horrek, prozesu horretan euren parte hartzea kudeatzeko helburuarekin eta hautagaiak kontratuaren aurreko neurriak hartzeko egindako eskaeran oinarri hartuta (enplegu-eskaera).

Deialdi honen xede den hautaketa-prozesua publikitatearen printzipioaren eraginpean badago, Donostiako Tranbia Konpainia SAUK, bere legezko betebeharrak betez, hautaketa-prozesuaren azken emaitzak eta prozesu horri buruz argitaratu behar diren gainerako alderdiak argitaratuko ditu, eta interesdunen nortasuna adieraziko du eskabide bakoitzari esleituko zaion identifikazio pertsonaleko kodearen bidez.

Datuak babesteari buruzko araudian ezarritakoa betetzeko, Donostiako Tranbia Konpainia, SAUK Datuak Babesteko ordezkari bat (DBO) du izendatuta. Ordezkari hori arduratzen da erakundearen pribatutasunaren kudeaketaz eta kontrolaz, eta hautagaiak harekin harremanetan jar daitezke helbide elektronikoen bidez: dpo@dbus.eus

Donostiako Tranbia Konpainia SAUK hautagaien datu pertsonalak gordeko ditu hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko behar-beharrezkoa den denboran, eta, hala badagokio, eta, beharrezkoa denean, erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio epe gehigarrietan ere.

Esandakoaren arabera beharrezkoak diren argitalpenak alde batera utzita, eta legez eska daitekeen kasuetan izan ezik, hautagaien datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak ere ez dira egingo.

Hautagaiak eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, datuok beste norabait eramateko edo, bidezkoa denean, datuon tratamenduari aurka egiteko ere, lopd@dbus.es helbidera zuzendutako idatzizko eskaeraren bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Aginteritzan edo beste edozein kontrol agintaritzan eskudunetan, batez ere beren eskubideak erabiltzean gogobeterik gelditu ez direnean.

Donostian, 2025eko martxoaren 12an